ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2016ko apirilaren 8a, ostirala • 39 zk.

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Errepide nagusietarako bide eta lotuneak mekanikoki garbitzeko zerbitzuaren prozedura irekia

Alkatearen dekretu bidez, erabaki da onartzea 2016., 2017., 2018. eta 2019. urteetan errepide nagusietarako bide eta lotuneak mekanikoki garbitzeko zerbitzuaren lizitazioa arautuko duen baldintza ekonomiko-administratiboen eta teknikoen agiria. Horrako hori iragarki honen bidez jakinarazten da.

I. Esleitzailea.

— Izena eta helbideak: Aiarako Udala, La Iglesia auzoa, 3, 01476 Arespalditza; telefonoa: 945 399013; Interneteko helbidea: www.aiarakoudala.com.

II. Kontratuaren xedea.

— 2016., 2017., 2018. eta 2019. urteetan errepide nagusietarako bide eta lotuneak mekanikoki garbitzeko zerbitzua.

— Zerbitzu kontratua.

III. Prozedura.

— Irekia.

IV. Epea.

— Lau urte, bi luzapen egiteko aukerarekin, bakoitza urtebetekoa.

V. Lizitazio oinarria.

— Lizitazio oinarria: urtean 29.000,22 euro gehi 2.900,02 euro (ehuneko 10eko BEZa).

— Kontratuaren gutxi gorabeherako zenbatekoa: 194.591,46 euro, BEZa barne.

VI. Bermeak.

— Behin betikoa: esleipen aurrekontuaren ehuneko 5, kontuan hartuta kontratuaren iraupena eta luzapenak.

VII. Kaudimena.

— Ekonomia eta finantza kaudimena eta kaudimen teknikoa edo profesionala, baldintza agirien VI.2 klausularen arabera.

VIII. Esleipen irizpideak.

— Automatikoki kuantifikagarri diren irizpideak: 51 puntu.

— Balio judizio baten arabera neurtzen diren irizpideak: 49 puntu.

Xehetasunak eta haztapena: administrazio klausulen agiriaren IX. klausulan.

IX. Eskaintzak non eta noiz aurkeztu.

— Epea: eskaintzak, agiriaren VI. klausulan eskatzen den dokumentazioa barne, hamabost (15) egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, lizitazio iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

— Non: Aiarako Udalaren Erregistro Orokorrean (La Iglesia auzoa, 3. zenbakia, Arespalditza, Araba), goizeko 9: 00etatik 14: 00etara, edo 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako lekuetako edozeinetan (30/1992 Legea, azaroaren 26koa, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearena).

— Dokumentazioa: Baldintza agiria eta gainerako dokumentazioa udal bulegoetan izango dute eskura interesdunek, proposamenak aurkezteko epeak irauten duen bitartean eta aipatutako ordutegian; baita udal honetako kontratatzailearen profilean ere, www.aiarakoudala.com web orrian.

X. Proposamenak ireki eta sailkatzea.

— Agiriaren VIII. klausularen eta hurrengoen arabera.

XI. Kontratistaren berariazko betebeharrak.

— Laneko betebeharrak, gizarte segurantzako betebeharrak eta laneko segurtasun eta osasuneko betebeharrak.

— Ingurumen arloko eta gizarte arloko gauzatze betebehar bereziak.

Administrazio klausulen agiriaren XIV. klausulan datoz xehetasunak.

XII. Lagapena eta azpikontratazioa.

— Bai, SPKLTBaren 226tik 228ra arteko artikuluetan ezarritako mugekin.

XIII. Kontratua aldatzea.

— Bideak edo bide zatiak sartzeagatik edo bazter uzteagatik.

Muga, esleipenaren urteko zenbatekoaren ehuneko 10.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Arespalditza, 2016ko martxoaren 17a

Alkate-lehendakaria
GENTZA ALAMILLO UDAETA

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2016.04.08 05:44:18 Z